

IKO-ko ikasle batek irabazi du Sustatu saria

2006/12/18

Atzo iluntzean jakin zen Mikel Alvarez ikasle feasindarrak irabazi duela Sustatu saria blog artikulu onenari, [artikulu honekin](#).

Mikelek iPod musika jogailu bat irabazi zuen, 80 GBkoa. Epaimahaiak honela argudiatu zuen erabakia: "The Indezents du izena blogak. Bruce Lee-ren aurpegia du aldamenean. Mezu bat baino gehiago proposatu zigun, baina oilasko petxugarena aukeratu du epaimahaiak. Mezu bihurri bat, ganberro samarra, baina freskoa.

The Indezents-ek mutil gazte bat izan behar zuela susmatu genuen, bere hozkailuaren egoera jakinda, eta halaxe da, Sustatuko blog mezuen lehiaketaren irabazlea, Mikel Alvarez feasindarra da". Ekitaldiko argazkiak, [hemen](#).